

Egoeraren Azterketa



Egoera sozial eta ekonomikoaren azterketa

Gure behin-behinekotasuna Europakoa baino 16,3 puntu altuagoa da.

Sinatutako kontratuen %92,2 aldi baterakoak dira.

102.000 langabe daude, 2002an baino 800 gehiago

LAGS: erosteko ahalmena %20,7 txikiagoa da 1983tik hona

PFEZ gehiago ordainduko da ez deflaktatzearen ondorioz

Hego Euskal Herriko (*) lan eta ekonomi egoeraren adierazleak

ADIERAZLEA	NEURRIA	AZKEN DATA	AZKEN DATUA	12 HILABETE LEHENAGO	2003
ENPLEGUA ETA LANGABEZIA					
JARDUERA TASA	%	03 IV	69,8	69	69,8
"EUROPAKO BATASUNEAN	%	2001	69		69
69LANEAN DAGOEN BIZTANLERIA	KOPURUA 03 IV	1.140.000		1.129.400	1.140.000
SOLDATAKO BIZTANLERIA	KOPURUA	03 IV	915.900	896.100	915.900
ALDI BATERAKOTASUN TASA	%	03 IV	29,3	32	29,3
"EUROPAKO BATASUNEAN	%	2001	13	13,2	13
BIZTANLERI LANGABETUA	KOPURUA	03 IV	102.000	101.200	102.000
LANGABEZI TASA	%	03 IV	8,3	8,2	8,3
"EUROPAKO BATASUNEAN	%	03 ABE	8	8	8
" ELGEn	%	03 AZA	7	7	-
GAZTEEN LANGABEZI TASA	%	03 IV	21,4	19	21,4
"EUROPAKO BATASUNEAN	%	03 ABE	15,4	15,6	15,4
EMAKUMEEN LANGABEZI TASA	%	03 IV	11,2	11,5	11,2
"EUROPAKO BATASUNEAN	%	03 ABE	8,9	8,9	8,9
SINATURIKO KONTRATUAK	KOPURUA	04 URT-OTS	154.061	148.621	948.984
MUGAGABEKO KONTRATUAK	KOPURUA	04 URT-OTS	13.871	13.824	73.879
ENPLEGU ERREGULAZIOA					
ONARTURIKO FITXAK	KOPURUA	03 URT-AZA	425	361	-
ERAGINDAKO LANGILEAK	KOPURUA	03 URT-AZA	14.476	6.682	-
LAN ISTRIPUAK					
BAJA HARTZEN DUTEN LANGILEAK	KOPURUA	03 URT-IRA	49.579	51.947	-
HILDAKOAK ETA LARRIAK	KOPURUA	03 URT-IRA	670	704	-
ESKAINNTZA ETA ESKARIA					
INDUSTRI PRODUKZIOA EAEn	% ALD.	03 URT-ABE	0,7	-1,2	0,7
INDUSTRI JARDUERA NAFARROAn	% ALD.	03 ABU	6,5	5,7	-
PRODUKZIO AHALMEN ERABILERA EAEn	%03 IV	79,6		81,8	79,4
BPGa EAEn	% ALD.	03 III	2,1	1,6	2,2
BEGa NAFARROAn	% ALD.	03 IV	3,1	3,1	3
BPGa ESPAINIAR ESTATUAN	% ALD.	03 IV	2,7	2,1	2,4
BPGa EUROPAKO BATASUNEAN	% ALD.	03 IV	0,9	1,2	0,7
PREZIOAK					
URTEARTEKO KPIa ESPAINIAR ESTATUAN	%	04 URTARRILA	2,3	3,7	2,6
" EUROPAKO BATASUNEAN	%	03 ABENDUA	1,8	2,2	1,8

* Adierazleak Hego Euskal Herriari dagozkio. Bestelako kasuan lurraldea zehaztuko da.

Iturriak: Eustat, Instituto de Estadística de Navarra, Eurostat, OCDE, Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, Osalan, INSL, INEM, INE.

95. zbk. **Egoeraren Azterketa** 2004ko martxoan



Aurkibidea

SARRERA3

EGOERA SOZIAL

ETA EKONOMIKOARI

BURUZKO IRUZKINAK4

1. 2003an sortutako enplegu guztia emakumeentzat4
2. Soldatuko biztanleria gehitu egin da 2003an4
3. Europakoa baino askoz behin behinekotasun altuagoa5
4. Langabe kopurua gehitu egin da 2003an5
5. Sinaturiko kontratu mugagabeen portzentaia murriztu egin da 2003an6
6. Ondorioak6

HIL HONETAKO

PUNTAKO GAIAK.....8

1. LAGSak eros ahalmena galduz jarraitzen du7
2. Espainiar estatua, EBko lehengotarikoa urteko lanordu kopuruan7
3. PFEZ ez da inflazioari egokituko 2004an8

ERABILITAKO SIGLAK

HEH	Hego Euskal Herria
EAE	Euskal Autonomi Erkidegoa
EB	Europako Batasuna
ELGE	Ekonomi, Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea
BPG	Barne Produktu Gordina
BEG	Balio Erantsi Gordina
KPI	Kontsumorako Prezioen Indizea
BJA	Biztanleria Jardueraren Arabera
BAI	Biztanleria Aktiboaren Inkesta
PII	Produkzio Industrialaren indizea
JII	Jarduera Industrialaren Indizea
Eustat	Euskal Estatistika Institutua
INE	Instituto Nacional de Estadística

EGOERAREN

A Z T E R K E T A

Sarrera

Egoeraren Azterketaren 95. zenbaki honetan, 2003ko laugarren hiruhileko enpleguari buruzko informazioa eta beronek urtean zehar izan duen bilakaera aztertuko ditugu, eta, aukera ematen duten aldagaietan, Europako informazioarekin alderatuko ditugu datuak. Horrela, agerian utzi ahalko ditugu gure behin-behinekotasun tasa altua eta Europan baino nabarmenkiago jasaten ditugun genero-desorekak. Hil honetako puntako gaietan, Lanbide Arteko Gutxieneko Soldataren eroste-ko ahalmenean izan den galerari, Europako Batasuneko estatu batzuetako lanorduen kopuruari, eta EAEko PFEZ ez deflaktatzeak zergadunei ekarriko dien ordainketaren gehikuntzari buruz mintzatuko gara.

** Txosten hau 2004.eko martxoaren 3an eguneraturiko informazioarekin burutua izan da.*

Egoerari buruzko aurreko azterketan, EAeko enpleguak 2003aren amaieran erakusten zuen egoeraren diagnostikoa egin genuen. Dagoeneko, Nafarroako datuak ere ezagutzen ditugunez, 2003. urte osoko enpleguaren eta langabeziaren egoera eta bilakaera azter ditzakegu oraingoan, **Hego Euskal Herriari** dagokionez.

65 urtetik beherako biztanleriaren **jarduera tasa** (lanpostua duen edo aktiboki hau bilatzen duen biztanleriaren portzentaia) %69,8koa izan zen 2003ko laugarren hiruhilekoan Hego Euskal Herrian; horrek nolabaiteko igoera (0,7 puntukoa) erakusten du 2002ko epealdi beraren aldean. Gehikuntza hori, batez ere, emakumeen kolektiboaren tasak (1,4 puntuko igoera) eragin du, gizonezkoena ere zerbait igo bada ere (0,06 puntu); horren eraginez, bi sexuen arteko aldea txikiagoa da orain, aldagai horri dagokionez. Hala ere, gizonezkoen jarduera tasa (%80,6) emakumezkoena (%58,8) baino 21,8 puntu altuagoa da oraindik ere.

1. 2003an sortutako enplegu guztia emakumeentzat

Aztertzen ari garen aldian, 1.140.000 **biztanle zebiltzan lanean**, 678.400 gizon (lanean zebiltzan pertsona guztien %59,5) eta 461.600 emakume (%40,5), hain zuzen ere. Hortaz, 2003an, 10.600 lanpostu sortu ziren guztira, egitate horrek generoaren arabera oso eragin ezberdina izan duen arren. Izan ere, lanean dabilen gizonezkoak 2.200 gutxiago dira, lanean dabilen emakumeak, berriz, 12.700 gehiago direlarik. Horren arabera, 2003an sortu diren lanpostu guztiak eta gizonen kolektiboak galdutakoak emakumeen kolektiboak bereganatu ditu. Horrek murriztu egin ditu generoen arteko ezberdintasunak, baita lanean dabilen biztanleriaren dagokionez ere. Hala ere, ez dugu ahaztu behar, lan egiteko adinean dauden 100 gizonetik 75,5 lanean daudela, portzentaje hau 23,5 puntu baxuagoa delarik emakumeentzat (%52,2).

Lanean dabilen biztanleria sektoreka aztertzen badugu, enpleguaren gehienak, hots, 686.300 lagunek (osokoaren %60,2), zerbitzuetan dihardutela ikus daiteke, sektore horretako %44,8 gizonak eta %55,2 emakumeak direlarik. Horixe da emakumezko langileak gizonezkoak baino gehiago diren sektore bakarra. Bigarren langile kopuru handiena duen sektorea industria da;

sektore horretan, 317.000 lagunek dihardute, osokoaren %27,8, alegia. Bertako langileetarik, gizonak %78,2 dira, eta emakumeak, %21,8. Langile gehien dituen hirugarren sektorea eraikuntza da: 103.400 lagun, hau da, osokoaren %9,1; eraikuntza da, hain zuzen ere, gizonen portzentaje handiena (%94,3) eta emakumeen portzentaje txikiena (%5,7) dituen sektorea. Langile gutxien biltzen dituen lehen sektorea da: 33.200 lagun eta langile kopuru osoaren %2,9, hain zuzen ere; portzentaje horren %75,9 gizonei dagokie, eta %24,4, emakumei. Enpleguak urtean zehar sektorez sektore izan duen bilakaera aztertuta ikus daitekeenez, zerbitzuen sektoreak izan du igoera handiena langile kopuruari dagokionez (8.900), atzetik industria (700), eraikuntza (500) eta lehen sektorea (300) izanik.

LANEAN DABILEN BIZTANLERIA SEKTOREKA. HEGO EUSKAL HERRIA, 2003-IV.


	Gizonak		Emakumeak		Guztira	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Zerbitzuak	307.800	44,8	378.500	55,2	686.300	60,2
Industria	247.800	78,2	69.100	21,8	317.000	27,8
Eraikuntza	97.500	94,3	5.900	5,7	103.400	9,1
Lehen sekt.	25.200	75,9	8.100	24,4	33.200	2,9
Guztira	678.300		461.600		1.139.900	

Iturriak: Eustat, Instituto de Estadística de Navarra

2. Soldatoko biztanleria gehitu egin da 2003an

Soldatoko biztanleria 915.900 lagunekoa izan zen: 527.200 gizon (%57,6) eta 388.600 emakume (%42,4), hain zuzen ere. Horrek 19.800 lagunek igoera adierazten du 2002ko hiruhileko beraren aldean. Soldatoko gizonezkoak 3.800 gehiago izan ziren, eta emakumeak, 15.900 gehiago. Soldatoko biztanleria lanean dabilen biztanleria baino gehiago hazi izanak erakusten duenez, soldatokoak ez diren biztanleak (enplegu-emaileak, autonomoak, familientzako laguntzan dihardutenak, kooperatibistak, eta abar) 9.200 gutxiago dira.

Lanean dagoen biztanleriaren %80,3a soldatoko da, ekitaldian puntu bat igo ondoren. Porzentaje hau 6,5 puntu txikiagoa da gizonezkoentzat (%77,7) emakumeentzat (%84,2) baino; emakumeek soldatoko lanpostuetan soldatarik gabekoetan baino presentzia handiagoa izateak azaltzen du datu hori.



3. Europakoa baino askoz behin behinekotasun altuagoa

Hego Euskal Herrian, behin-behinekotasun tasa %29,3koa zen 2003aren amaieran; emakumezkoen tasa (%35,3) gizonetzkoena (%24,9) baino 10,4 puntu handiagoa izan zen. 2002ko laugarren hiruhilekoarekin erkatuta, 2,7 puntuko jaitziera erakusten du behin-behinekotasun tasa orokorrak; emakumeena 4,1 puntu jaitsi da, eta gizonena, aldiz, 1,9. Datu horretan ere murriztu egin da behin-behinekotasunari dagokionez gizonen eta emakumeen artean zegoen aldea. Aitzitik, gazteen behin-behinekotasun tasa %69,9koa izan zen, hau da, aurreko urteko epealdi berean baino 2,1 puntu handiagoa; datu hori ez dator bat behin-behinekotasun tasa orokorrean izan den murrizketarekin.

ELGEari buruz argitaratutako informazioak gure behin-behinekotasuna eta *Europako Batasuneko* (EBkoa) erkatzeak aukera ematen digu, betiere EBren gainean dauzkagun azken datuak 2002koak eta HEHren gainekoak 2003koak direla kontuan hartuta. Europako Batasuneko behin-behinekotasun tasa %13koa izan zen 2002an, Hegoaldekoa baino 16,3 puntu txikiagoa, hain zuzen ere. Behin-behinekotasuna generoaren arabera aztertzean ikus dezakegunez, Europan gizonen behin-behinekotasun tasa (%12) gurea baino 12,9 puntu txikiagoa da, eta, emakumeen kasuan (%14,2), hemengoak baino 21,1 puntu txikiagoa. Beraz, Hego Euskal Herriko eta EBko behin-behinekotasun tasen arteko aldea handia delarik ere, askoz alde handiagoa dago emakumeen kasuan, gizonenean baino.

ELGEko informazioak *gazterien* behin-behinekotasun tasak ere *erkatzea* ahalbidetzen digu. Gogoan izan behar dugu EBko gazteria 15etik 24 urtera arteko biztanleek osatzen dutela, HEHkoa 16tik 24ra bitartekoek osatzen dutelarik. EBko gazteen behin-behinekotasun tasa %37,8koa izan zen 2002an, hau da, bertokoa (%69,9) baino 32,1 puntu txikiagoa. Beraz, behin-behinekotasun tasei dagokionez, EBren eta HEHren arteko jautzirik handiena gazteen kolektiboan gertatzen da. Generoen arteko desorekak talde horretan ere ageri dira. Izan ere, gizon gazteen behin-behinekotasun tasa %38,1koa izan zen EBn, Hegoaldeko %69,4koaren aldean, 31,3 puntuko jautzia era-

kusten duena. Emakume gazteen tasa, bestalde, %37,5koa izan zen EBn, eta bertan, %70,5koa; hortaz, kasu horretan, 33 puntuko diferentzia egon zen.

BEHIN-BEHINEKOTASUN TASAK HEGO EUSKAL HERRIAN (2003) ETA EBn (2002)

		HEH(2003)	EB(2002)	Aldea
Adin guztiak	Gizonak	%24,9	%12,0	12,86
	Emakumeak	%35,3	%14,2	21,09
	Guztira	%29,3	%13,0	16,28
Gazteak	Gizonak	%69,4	%38,1	31,27
	Emakumeak	%70,5	%37,5	33,03
	Guztira	%69,9	%37,8	32,07

Iturriak: Eustat, Instituto de Estadística de Navarra, OCDE

4. Langabe kopurua gehitu egin da 2003an

2003ko laugarren hiruhilekoan, **langabeak** 102.000 izan ziren: 44.000 gizon eta 58.000 emakume. Era honetara langabeen %43,1a gizonetzkoa da %56,9a emakumea. 2003an zehar, langabeen kopuruak 800 laguneko hazkundea izan du. Beraz, 2003a langabezia igo den ondoko ondoko bigarren urtea izan da, nahiz eta 2003ko hazkundea 2002koa (14.500 laguneko) baino askoz txikiagoa izan. Bai lanean dabilen biztanleria bai langabeak igo izanaren arrazoia biztanleria aktiboaren hazkundea da. Generoen arteko ezberdintasuna aldagai horretan ere ageri da, 2003ko ekitaldiari dagokionez: gizon langabeak 1.500 gehiago izan ziren; emakumeak, ordea, 600 gutxiago.

Era horretan, **langabezi tasa** %8,2koa izan zen, EBkoa (%8,3) baino hamarren bat txikiagoa, hain justu. Gizonen langabezi tasari dagokionez (%6,1), Europakoa (%7,3) baino 1,2 puntu txikiagoa izan zen. Emakumeen kasuan, aitzitik, ez zen gauza bera jazo, bertoko langabezi tasa (%11,2) Europakoa (%8,9) baino 2,3 puntu handiagoa izan baitzen. Hori ikusita, esan daiteke Hego Euskal Herriko langabezi tasa orokorra Europakoaren maila berean dagoela, gizonetzkoena baxuagoa dela Europakoa baino eta emakumezkoena handiagoa. Hala ere, generoen arteko desorekak handiagoa dira hemen Europan baino, EBn gizonen langabezi tasa emakumeena baino 1,6 puntu txikiagoa den bitartean, bertan emakumeen tasak 5,1 puntutan gaintzen baitu gizonena.

Hegoaldean, langabezi tasa orokorra bere horretan mantendu zen 2002ko aldi berarekin erkatuta, nahiz eta gizonen kasuan igoera txiki bat (0,2 puntuko) izan eta emakumeen apur bat (0,4 puntu) jaitsi zen.

Bestalde, gazteen langabezi tasa %21,4koa izan zen hemen, EBko %15,4koaren aldean. Horrez gain, Euskal Herrian, gazteen langabeziak 2,4 puntuko igoera izan zuen 2003an, Europako tasa bere horretan geratu zelarik; beraz, aldagai horretan EBrekiko zegoen jauzia areagotu egin zaigu.

LANGABEZI TASA OROKORRA ETA GAZTEENA, GUZTIRA ETA GENEROAREN ARABERA. HEH (2003-IV. HIRUHILEKOA) ETA EB (2003 ABENDUA)

		HEH	EB	Aldea
Orokorra	Guztira	%8,2	%8	0,2
	Gizonezk.	%6,1	%7,3	-1,2
	Emakum.	%11,2	%8,9	2,3
25 urtetik beh.	Guztira	%21,4	%15,4	6
	Gizonezk.	%16,4	%15,3	1,1
	Emakum.	%27,9	%15,6	12,3

Iturriak: Eustat, Instituto de Estadística de Navarra, Eurostat

5. Sinaturiko kontratu mugagabeen portzentaia murriztu egin da 2003an


Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioak argitaratutako informazioak HEHn 2003an zehar **sinatu ziren kontratuen** kopurua eta 2002. urteko kopuruarekiko bilakaera aztertzeke aukera ematen digu. 2003an sinatutako kontratuak 948.984 izan ziren, 2002an (898.871) baino 50.113 gehiago, alegia. Sinatutako kontratu horietatik bakarrik 73.879 (%7,8) izan ziren mugagabeak; beraz, 2003an sinatutako 100 kontratutik 92 baino gehiago aldi baterakoak izan ziren, eta horiei, gainera, lan kontraturik sinatu ez zeneko kasuak gehitu beharko litzaz kieke. 2002an, kontratu mugagabeak 75.562 izan ziren, hau da, kontratu guztien %8,4. Ondorioz, esan dezakegu 2002tik hona sinatutako kontratuen kopuru osoan aldi baterako kontratuei dagokien portzentajeak 6 hamarreneko igoera izan duela.

Eskuragarri dagoen azken informazioa 2004ko otsailekoa da, zeinen arabera, sinaturiko 154.061 kontratuen %9a izan zen mugagabea. Honek nolabaiteko jaitsiera suposatzen du 2003ko otsailarekiko (%9,3) ere.

6. Ondorioak

Esandakoaren arabera, honako **ondorio hauek** ateratu ditzaizkegu enpleguak 2003an izan duen bilakaeraren inguruan:

- Enplegua sortu da*, eta emakumeen kolektibora joan da guztia. Hala ere, 10.600 lanpostuko igoera hori ez da nahikoa, datu horrek %0,9ko igoera adierazten duelako, ekonomiak EAEn izan duen %2,2ko hazkundearen eta Nafarroako %3koaren aldean. Gainera, aurreko urteetan baino lanpostu gutxiago sortu dira.
- Behin-behinekotasun tasa 2,7 puntu jaitsi da*, gazteriarena igo bada ere. Dena den, soldatuko 10 langiletik 3k aldi baterako kontratua dute; horrek argi erakusten du Hego Euskal Herriko biztanleriaren zati handi batek nozitzen duen *behin-behinekotasun egoera kezagarria*. Horrez gain, sinatzen diren 100 kontratutik 92 baino gehiago aldi baterakoak dira, eta portzentaje hori igo egin da 2003an zehar. Horrek agerian uzten du zer egoera zaila duen gaur egun lan merkatuan sartzen den biztanleriak, kontratu mugagabea lortu ahal izateko.
- Biztanle langabeak 800 gehiago dira*; hazkundeak gizonen kolektiboan bakarrik izan du eragina. 2003a langabezia hazi den ondoz ondoko bigarren urtea izan da. Egitate horri guztiz arbuigarri deritzogu, ekonomiak hazten segitzen duela aintzat hartuta.



1

LAGSak eros ahalmena galduz jarraitzen du

LAGS deritzona politika ekonomikorako eta aurrekontuko gastua kontrolatzeko tresna gisa erabiltzen ari da, horrek gizarte-babesari eta Soldata hori bizirik irauteko behar duten pertsonen kalte nabarmena dakarkien arren. Hauek dira kaltetuenak:

1. Lanean ibili arren, hitzarmen baten babesari ez dutenak; edo LAGSa oinarritzat hartuz zehazten diren soldata-maila txikiak dituztenak, oinarritzako errenta eta antzekoak.
2. Lanik ez dutenak, gutxieneko soldata lan-gabeziagatik prestazio edo laguntza bartzuk kalkulatzeko oinarritzat erabiltzen delako LAGSa.
3. Legez ezarritako eta gutxieneko soldataren erlazioaturik dauden gutxieneko zenbatekoak jasotzen dituzten pentsiodunak.

KPI historikoaren bilakaera eta Lanbide Arteko Gutxieneko Soldatak 2004ra arte izan duena erkatzean ikus dezakegunez, **1983tik hona LAGSaren erosteko ahalmenak %20,7ko galera izan du.** Hots, gutxieneko soldata prezioak baino %20,7 gutxiago hazi da 1983tik hona. Bestela esateko, 1983tik aurrera gutxieneko soldata inflazioa bezala hazi balitz, 2004an 558 eurokoa (92.832 pezetakoa) izan beharko luke hileroko, oraingoa baino 97,5 euro (16.200 pezeta) gehiagokoa, alegia.

Gaur egun, **hileko LAGSaren 460,5 euroek (76.621 pezeta) ez dute inondik ere ahalbidetzen bizimodu duina izaterik**, diru kopuru hori pobrezia atalasearen azpitik dago eta. LAGS batez besteko soldataren %40a ere ez da helitzen; beraz, Europako irizpideen arabera ere, pobrezia atalasearen azpitik dago. Azken bi hamarkadetan galdutako erosteko ahalmena berreskuratzea eta soldata hori jasotzen dutenei produktibitatearen igoeratik dagokien partaidetza helaraztea premia larriak dira, batez ere baldintza ekonomiko larrienak jasaten dituzten pertsonak direla aintzat hartuta. Premia horien arrazoi nagusia gizarte-zuzentasuna da; baina, horrez gain, ekonomiari dago-

kionez, egon badago hori egiteko behar beste ko marjina, produktibitatean ematen ari diren eta enpresarietarako mozkin bihurtzen diren gehikuntzek erakusten dutenez.

LAGSAREN ETA INFLAZIOAREN BILAKAERA. 1983-2004 (ALDAKUNTZA %)

Urtea	KPI historikoa	LAGS	LAGSaren Eros Ahalmen
1983	14	13,1	-0,9
1984	12,2	8	-4,2
1985	9	7	-2
1986	8,2	8	-0,2
1987	8,3	5	-3,3
1988	4,6	4,5	-0,1
1989	5,8	6	+0,2
1990	6,9	7,1	+0,2
1991	6,5	6,5	=
1992	5,5	5,7	+0,2
1993	5,3	4	-1,3
1994	4,9	3,5	-1,4
1995	4,3	3,5	-0,8
1996	4,3	3,5	-0,8
1997	3,2	2,6	-0,6
1998	2	2,1	+0,1
1999	1,4	1,8	0,4
2000	2,9	2	-0,9
2001	4	2	-2
2002	2,7	2	-0,9
2003	4	2	-2
2004	2,6	2	-0,6
1983 bitarteko 2004 galera metatua			-20,7 puntu

Iturria: Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales

2

Espainiar estatua, EBko lehengotarikoa urteko lanordu kopuruan

ELGEk EBko 10 estatu kidetan urtean egindako lanorduen kopuruari buruzko informazioa eskaintzen du. Horren arabera, Grezia da urtean lanordu gehien egiten diren estatua (1.830), eta bigarrena, Espainiako estatua (1.747,7), 82,3 lanordu gutxiagorekin. Horien atzetik, Portugal (1.710), Erresuma Batua (1.683), Irlanda (1.589), Italia (1.552), Belgika (1.463) eta Danimarka

(1.448) datoz. Urtean lanordu gutxien egiten diren estatua Alemania da (1.361,1), eta horren ostekoa, Frantzia (1.392,7), 31,6 lanordu gehiagorekin.

Beraz, 10 horien artean, Espainia urtean lanordu gehien egiten diren estatuetakoa bigarrena da, lehenengoarekin 82,3 lanorduko aldea eta lanordu gutxien egiten direnekoarekin 386,6 lanorduko aldea erakusten dituelarik.

URTEAN BATEZ BESTE EGINDAKO LANORDUAK. EB 2002

Estatua	Batez besteko orduak	Aldea
Grezia	1.830	
Espainia	1.747,7	82,3
Portugal	1.710	37,7
Erresuma Batua	1.683	27
Irlanda	1.589	94
Italia	1.552	37
Belgika	1.463	89
Danimarka	1.448	15
Frantzia	1.392,7	55,3
Alemania	1.361,1	31,6

Iturria: OCDE

3

PFEZ ez da inflazioari egokituko 2004an

EAEko foru ogasunek 2004an PFEZ ez deflaktatzea erabaki dute; horrek esan nahi du zergaren tarifa ez dela inflaziora moldatuko. Prezioen igoera PFEZan ez "deskontatzearen" ondorioz, **zerga hori ordaindu behar duten pertsonen gehiago ordaintzea egokituko zaie, termino errealetan.**

PFEZaren tarifa ez deflaktatzeak daukan eragina erakusteko adibide bat azalduko dugu, labur-labur, 2003an, hurrenez hurren, 15.000€-ko eta 24.000€-ko soldata gordinak jaso zituzten bi pertsonaren kasuak aztertuz. Balizko egoera honetan, eman dezagun pertsona horiek %2,6ko soldata igoera (hau da, 2003ko KPIaren bestekoa) dutela 2004an. Orain, 2004an PFEZaren tarifa deflaktatuz gero, pertsona horietako bakoitzak ordaindu beharko lukeena kalkulatuko dugu, bai eta taula ez murrizteagatik benetan ordainduko dutena ere.

Ondoko taulak erakusten duenez, 15.000€-ko diru-sarrerak dituen pertsonak 44€ gehiago ordaindu beharko ditu tarifa ez deflaktatzearen ondorioz; hau da, bere soldata-igoeraren %11,3 erabili beharko du PFEZ handiagora ordaintzeko. Ondorioz, erosteko ahalmena galdu egingo du berez. Bestalde, 24.000€-ko diru-sarrerak dituen pertsonak 143,1€ gehiago ordaindu beharko ditu zerga dela eta; hots, bere soldata-igoeraren %23 galduko du tarifa ez deflaktatzeagatik.

PFEZAREN TARIFA DEFLAKTATZEAREN ETA EZ DEFLAKTATZEAREN ERAGINA (€)

Soldata gordina	15.000	24.000
04 kuota def.	1.909,7	3.982,3
04 kuota def. ez	1.953,7	4.125,4
Aldea	44	143,1
Galdutako soldata igoeraren %a	11,3	23

Iturria: Gabinete de Estudios de ELA

Erabaki hori justifikatzeko, 2003ko PFEZaren erreformak diru-sarrera publikoei murrizketa garrantzitsua ekarri diela erabili dute argudioztat. Diru-sarrera publikoei murrizketa bera dakarkiete tarteetako urteko deflaktazioak eta zenbait urterik behin PFEZaren tasak murrizten dituen erreformak. Baina neurri horietako lehenengoa ez da hainbeste igartzen, eta bigarrenak, berriz, **oso eragin onuragarria izango du hauteskunderi begira.** Izan ere, zergak murriztea oso aukera erakargarria da, mundu guztiak nahiago duelako zerga gutxiago ordaintzea. Instituzioek, ordea, ez dute azaltzen zein den zergak murriztearen ondorioa: diru-sarrera gutxiago biltzea, eta, beraz, gastu publikoa-eta bereziki gizarte-gastua- urritzea, alegia. Era berean, ez dute azaltzen zergak murriztearen onura txikiena eta gastu publikoa urritzearen kalterik handiena gizarteko klaserik apalenek jasaten dituztela.

PFEZaren tarifa prezioen bilakaerara moldatzeak ogasunen betebeharra izan beharko luke.